Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Benita Epelde Bergaretxe

Bergara, Gipuzkoa (1932)

Aurkibidea

Biografia

Osintxu auzoko Olabarri baserrikoa. Bergarako toponimia jasotzeko egindako lanean berak emandako azalpenak oso lagungarriak izan ziren.

Zintak

BER-239

- **Proiektua**: Bergarako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Jauregi , Jose Ramon "Epelde"
- **Data**: 1991-07-21
- **Iraupena**: 16 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Osintxu auzoko toponimia

- **Erref**: BER-239/001
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Osintxu auzoko toponimia.

Transkripzioa
- Ta hor txabolak Artozabal azpikua ta Artozabal gaiñekua ta horrek nun dare Azpondon?
- [Artozaal] azpikuan ez dao txabolarik hor. Bueno, oin harena, ba, […] [Artozaal azpikuan] bi txabola zahar. Hori Aizpondo da.
- Dana?
- Dana, errekaraiño.
- Ta Lixiba errekia, zein da hori?
- Lixiba errekia gure txabolatik gorakua, Iruzotako txaboletatik gora dauena.
- Ta lehen horrek esan dabena…?
- Estatapeta? […] Iruz(o)tako txaboletara bittarteko hori.
- Iruzota errekia ta Lixiba errekia bat dia?
- Bat.
- Ta, aber, Erdiko basua ta hor nun zentrau bihar dittuu?
- Erdiko basua Saatsitturri[ra].
- Saatsitturrittik Pol-pol aldera?
- Bai.
- Hori da…?
- Erdiko basua. Horri Saatsitturri esaten jako danorri.
- Ta gero Kaballei, hau noraiño da?
- Noraiño dan, ba… Oitturriko [errekara…] izango da.
- Baiña hemen hasitta? Hemen bueltan?
- Hor hasitta […].
- Ta Asundi sakona ze da o nundik nora doia hori?
- […].
- Benita: Asundi sakona Elusu aldien dao!
- A! Hori… ya, ya, ya…
- B: Haura oso urrin zabitz! Asundi sakona dao Elusu aldien, Zaniolatik gorako sakon haura.

2. Osintxu auzoko toponimia

- **Erref**: BER-239/002
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:07:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Osintxu auzoko toponimia, Elosu auzoarekin muga inguruan.

Transkripzioa

- Jose Mari: Zaniolatik gorako sakona. Zaniola baiño harutzao dao, Elusu alderao dao hori.
- Benita: Bai, sakon haura behetik gora Asundi sakona.
- Ta errekatxun bat o dauka o...?
- J.M: Bai, badauka.
- Ta errekatxo horrek zela dauka izena Asundi errekia edo...?
- B: Zaniola errekia izango da seguruasko.
- J.M: Ez! Tokittan dao Zaniolatik haura!
- Asundi errekia?
- B: Zelaundi errekia? Zelaundi errekia izatekotan...
- J.M: Hori baleike igual.
- B: Asundi errekia ez dot entzun sekula, Zelaundi errekia izengo da.
- J.M: Baiña [...] hau eitten dau harek [sakonetan ura egongo da].
- B: Ta gero [Arandon be] ur bedeinkatu ontzixa ta...
- J.M: Han be...
- B: Klaro, [Eizalen... hurrengo... Bergaran].
- J.M: Hori, lehen esaten jardun douna, Zaniolako errekia, hori da ur bedeinkatu [ontzixa] juten dana. Horra juten da Zaniolatik behera.
- B: Bai, holan sartzen da errekia...
- Eta Ur bedeinkatu ontzixak ze pintatzen dau...?
- J.M: Ezebez. Haura da, ba... holaxe eitten dau harek.
- B: Holaxe dao. Da... kopa baten forman goittik behera errekiak alde bixetatik dittuela eta esaten jako ur bedeinkatu ontzixa.
- J.M: Badakizu nun daon hori? Guk apeak etara [...], nora etara zittuen badakizu? Ikusi ziñuzen? Ba, hortxe parian. Harutzatxuao zeoze, baiña hortxe parian. [...].
- Otain?
- B: Otain? Otain dao Gomezkortatik lehen esan dozun... Gomezkortatik Pol-polera gatozela Otain dao. Kruze bat da...
- Gomezkortatik Pol-polera?
- J.M: Txiki partetako bidekutza eta Pol-poleako birekutza, Gomozkortatik Pol-pol aldera goiatzela.
- Hori da Lezaso [?]ko bidia ta Pol-polera hartzen dan bidian kruzia.
- B: Txiki partiek zein dien esplikaixozu.
- Bueno, egon, hori gero. Itxusiko aldapia nundik nora dao?
- B: Itxusiko aldapia Otaindik Gomezkorta bittartien dao.
- Eta ze da, zelaixa, terrenua, bidia...?
- B: Ez, bidia da. Eta han zeuen kruze bat Elusura oiñez juteko goittarrak eta behetarrak. Eta gu giñen behetarrak eta goittarrak zien Labia, Benta, Elormendi... harek juten zien goittik. Behetik juten giñen Artzal, Eizal, Gomezkorta, Narbaiza, Kantera... E? Ta hori, garotan ibiltzen giñenien han eitten zan atsedena ta juten zan...
- Ategorritta zein da?
- B: Ategorritta da Elusuko Illarramendi. Gure etxeko sailla Ategorritta. Ta han dao depositto bat Elusura juten zana ura, Elusura Bergaraa. Bergarako Pol-poleko ure ta han zeuan, ba, rebisatzeko zer bat. E? Arketa haundi bat bere ate gorrixakin, ta esaten jakon Ategorri.
- Bueno, ta Ategorritta hori, orduan, depositto bat zan...
- B: Depositua zan ta da.
- Bueno eta dao, Illarramendin dao?
- B: Illarramendin dao.
- Eta Illarramendi nun dao?
- B: Illarramendi dago Pol-pol errekia goittik behera gatozela, alde batera gelditzen da zera...

- J.M: Lehen esan dou Basoberrixak? Alde batetik, ta haura beste aldetik.
- B: Bai, Basoberrixak eta zera be bai behera hara orduko...
- Mandazulo ta Zaniola erreka bittartian?
- B: Mandazulo oso goixen dao!
- J.M: Mandazulo jak Pol-poletik gora!
- B: Mandazulo Pol-poletik Irukutzetara dao! Ta bestia Keixetako zelaixek goittik behera pasa eta behera...
- Keixeta. Ze, hemen lehen danian azaltzen dia Keixetak eta Keixeta ze da, terreno bat kriston saillak...?
- B: Sailla kristona.
- J.M: Hori Keixeta mendixa esaten jakona da hori, Elusu aldeko danai.
- B: Keixeta mendixa. Hori danoi Keixeta da.
- Nun hasten da Keixeta? Irukutzetan hasten da Keixeta?
- Pol-polien. Irukutzeta beti Irukutzeta da. Pol-polien hasi eta Elusu aldera daren saillek, lautada horrek danok eta aldapia pixkat goittik behera be dana Keixeta da.

3. Osintxu auzoko toponimia

- **Erref**: BER-239/003
- **Iraupena**: 0:05:00. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:12:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Osintxu auzoko toponimia, Elosu auzoarekin muga inguruan.

Transkripzioa
- Benita: Hori danoi Keixeta mendixa da.
- Bai, hemen ipintzen douna Keixetako hegixa eta...
- Keixetako hegixa da...
- Bai, zati bat.
- ... zati bat, eta gero Keixeta da, ba...
- [Mauketa], aber.
- Ba, horixe, Keixeta mendixa hori be.
- Hori be beste zati bat da? Beste gain bat edo...?
- B: Hori [...] zeralderakua...
- Azkoittikin jurgua?
- B: Azkoittirako jurgua.
- Baiña Keixeta barruan?
- Keixeta barruan.
- Etxeberri sailla lehen esan dozunori ze da?
- Dana bat da hori.
- Hoixe: Maurketa, Etxeberri sailla...
- Ze da, hori be Keixeta barruan?
- Keixeta. Keixetako zelaixek die horrek.
- Eta Intxausteko txabolia ta hori be Keixeta barruan dao?
- Harek Intxostako txabolak Azkoitti partian igual egongo dia harek, baiña jurgu samarrian, hortxe.
- Egialdapak?
- Egialdapak? Egialdapak Ontzolan.
- Oontzola...
- Laspurtik Ontzolara bittarte [...] horrek, Egialdapak.
- Laspurtik nora bittartian?

- Laspurtik Ontzolara bittartian, gora daren horrek.
- B: Egizalera arte daren […].
- Eizalera arte ez, Eizalera arte ez, Eizal barreneraiño bale, baiña Eizalera arte ez.
- B: Egialdapak? Bai… Haura oin piñuaura bota dabena Eixaalgua Egialdapia izengo da, ba, ez?
- Hor, Abaskalen depositto bestekaldia?
- Ba, behera hori, behera Egialdapia, bai.
- Ta Eider errekia.
- Eider, Eider errekia, hori hor [Olabaso?] aldien…
- B: Ba, zerak esan dozuna: Itturrebarriko askan hasi ta goittik behera datorrena hori Eider errekia da.
- […Egieder] esaten dozuna?
- […] bai hori, hori da Eidar errekia.
- Aber, Arando errekia hemen etxe aurrian daona ez, aurreraokua, han [Gaztañei?…], ez?
- […].
- Gaztañei(ko) barrenian […inguruan…] dana.
- Bai.
- Arando errekia…
- Hau Billotei errekia.
- Billotei errekia hau?
- Markiuso.
- Markiuso, ba, han […] daona, Gantxoittikua.
- Hori Bergara partia da, ez?
- Bai.
- Hori ze da, pistia Itturbittara allegau baiño lehenao azkenengo bueltia hartzen dan lekuan?
- Bueltia edonora.
- Eta oin Txiki partia.
- Txiki partia kontau dostat lehen, e? Kontau dostat.
- Nun dao?
- Hamen gaiñekaldian.
- Baiña gaiñekaldian nora Pol-pol aldera ala Gomezkorta aldera?
- Pol-pol aldera. Zaniolatik Elusu aldera.
- B: Elusu aldera harutz. Ta han itturrixa bada, ezta? Hor Txiki partetan nunbaitten.
- Lehen esan dozu zuk beste itturri bat esan dozu hor izen xelebre bat…
- B: Txindurri?
- Ez, beste izen bat esan dozu.
- Hilarik esan dabena, igual egongo dala esan dau Txiki partietan. Hor ura eruaten zabela, uretara horra juten ziela ta.
- Bai, ura ertengo dau…
- Zuk entzun dozu sekula Beittinitturrixa edo?
- E?
- Beittinitturrixa o Betxin o holako bat?
- Gomezkorta inguruan edo…
- Beittin… […] Ez dakit zela esaten jakon hari…
- B: Txindurri bai.
- Han bidetik azpikaldien […]…
- B: Txindurri…
- Ta hemen Gomezkortan gaiñien badao ezer hola beste mendin bat o izen… zelain bat edo…? Agarreburutik harutz Keixeta aldera edo badao zerbaitt izena daukana?
- Agarreburutik Keixeta aldera, ba, ze esango dotsut? Sankristauan itturrixa ta horrek zer dia?

- San Kristobal itturrixa?
- Sakristaua.
- B: Sakristauan itturrixa, Agarretaa ura doiena. Nun daon? Hemen bista-bistan. Hor piñua sartu zeben...

4. Elosu auzoko toponimia

- **Erref**: BER-239/004
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:12:00. **Bukatu**: 00:16:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Elosu auzoko toponimia, Osintxu auzoarekin mugan.

Transkripzioa
- Ta hemen Gomezkortan gaiñien badao ezer hola beste mendin bat o izen... zelain bat edo...? Agarreburutik harutz Keixeta aldera edo badao zerbaitt izena daukana?
- Agarreburutik Keixeta aldera, ba, ze esangotzut? Sankristauan itturrixa ta horrek zer dia?
- San Kristobal itturrixa?
- Sakristaua.
- Benita: Sakristauan itturrixa, Agarretaa ura doiena. Nun daon? Hemen bista-bistan. Hor piñua sartu zeben...
- A! Horrek, horrek... Frantzesbasua esaten jako [...].
- Bai, bai, bai. Frantzesbasua esaten da?
- Bai, Frantzesbasua.
- [Muesarri] saillak.
- Eta [Soruzaitza edo izenik] bai? [Soruzaitza. Soruzaitza] o... ba, ez dakit nun daon. Agarreburu inguruan edo [...] aldian edo. Edo Atsobaso edo beste izen bat be... Ez? Hemen apuntauta dare, baiña ez dakit...
- [...].
- Edo igual izango dia Azkoittiko izenak, Azkoitti aldeko izenak.
- B: Goiko basua.
- Hori nun dao?
- Ba, Agarreburutik Pol-pol aldera, Goiko basuak. Eta gero Krabelin haitzak aurrerao Pol-pol alderao ta gero hortik aurrera Hilarik esan dotsuen ilera hori.
- Eta hor, Hilarik esan doskun ilaria zeuan Azkoittikin jurguan. Hortik behera ez dao ezer?
- B: Hortik behera? Ba, lehen esan dot, Zelaaundixek.
- Zelaaundixek? Horrek ze die?
- Zelai haundixek. Ba, horrek die garo-sail...
- Entzun, Zelai haundixa esaten jakona da Krabelin haitzetik...
- B: Behera datorren sail hori.
- Zelai haundixek. Ta ze gehixao? Krabelin haitzak ze dia, punta bat baiño gehixao?
- B: Sail bat da hori.
- A! Sail bat da?
- Tontor bat?
- Bai, bai, bai. Eta Agarreburun repetidora dao ala ondokuan da?
- B: Agarreburutik honutzao dao. E? Elusu mendixan, honutzao. Agarreburu da hori Begatik gorako tontor hori da Agarreburu. Eta hortik honutzao, Pol-

pol alderago, dao repetidoria.
- [...] dao hori?
- B: Hori Elusu mendixa da hori.
- Elusumendin dao repetidora?
- B: Bai.
- Mapa hau [...], dana aldrebes dao: repetidora hemen dao Agarreburun, Elosumendin ez dao, beste Agarreburu bat dao hemen... Bi Agarreburu dare ala...?
- B: Agarreburu esango jaue oin repetidora dauenai? Nik Elusumenditzat dauket hori.
- Zela izengo da, ba, Elusumendixa? Hau da Frantzesbasua edo holakon bat da hori. Hor goixan dao...
- Nik ez dot uste hori Elusu mendixa danik Elusutik gora daon... Agarreburu izateko sentidu gehixao dauko Elusumendi izeteko baiño, azpixen Agarre dao ta.
- [...].
- [...] Agarreburu guk esaten [...] Bentati ta Labiatik gora daren sail haura tontor haura da ta repetidoria askozaz honutzao, Pol-pol alderao. Ze denominaziño dauken? Ba, ez dakit. Nik neure ustez Elusumendi da hori, baiña oin ez dakit.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-28

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com